

Gipuzkoako Bazkondeak Acelera Pyme bulego bat izango du eraldaketa digitala bultzatzeko.

- *Gipuzkoako Bazkondeak arreta eta aholkularitza eskainiko die negozioa digitalki abiarazi edo eraldatu nahi duten Gipuzkoako enpresa txiki, ertain eta autonomoei.*
- *Helburua zehatza du; produktu teknologikoen merkaturako sarbidea erraztea eta enpresei negozio, ekoizpen, produktu zein zerbitzu-prozesuetan lehiakorragoak izaten laguntzea, teknologia digitalak erabiliz.*
- *2021. urtean antolatutako ekimen ezberdinen bidez, Gipuzkoako 200 enpresa baino gehiagorekin lan egin eta laguntza eskaintzea aurreikusten dugu.*

Donostia - 2021eko maiatzaren 13a – Gipuzkoako Bazkondeak, Red.es eta Espainiako Ganberarekin lankidetzan, Acelera Pyme Bulegoen Programa jarri du abian, enpresa txiki eta ertain, autonomo eta ekintzaileen eraldaketa digitala bultzatzeko helburuarekin, IKTen etengabeko kultura, erabilera eta aprobetxamendua ezarriz beren enpresa-estrategietan.

Red.es-ek eta Espainiako Ganberak 60 Acelera Pyme bulego sortzeko lankidetzeta-hitzarmena aurkeztu du Merkataritza Ganberen sarearen bitartez, horien artean Gipuzkoako Bazkondea dagoelarik. Helburua zehatza du; produktu teknologikoen merkaturako sarbidea erraztea eta enpresei negozio, ekoizpen, produktu zein zerbitzu-prozesuetan lehiakorragoak izaten laguntzea, teknologia digitalak erabiliz, ekonomia digitala sistematikoki txertatuz, zehazki, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei (IKT) dagokionez. ETEen, mikroETEen eta autonomoen ohiko jardueran eta estrategian bidaide izan eta, nazioarteko produktibitatea eta lehiakortasuna maximizatuko duten funtsezko tresnak eskainiko dizkiegu.

Digitalizazioak atea irekitzen ditu lehen pentsaezinak ziren jarduerak eraldatzeko. Hala nola, ibilgailuen, piezen eta osagaien eskaneatzea eta digitalizazioa ekoizpen-lerroen barruan integratzea, gaixotasunen terapia errealitate birtualaren bidez artatzea, enpresaren ondasunak eta aktiboak geolokalizatzeko teknologia, kontsumo-produktuak modu masiboan eta kostu txikiekin pertsonalizatzea, etab.

Zehazki, Gipuzkoako Bazkondeak honako hauek zerbitzuak eskainiko ditu:

- Neurritan egindako aholkularitza-zerbitzu bat, enpresen eraldaketa digitala bideratzeko: produktu eta zerbitzu berriak merkaturatzeko eta probatzeko aholkularitza; haien balio-proposamenaren diseinua; enpresaren digitalizazio-aukeren azterketa edo ingurune lehiakorren azterketa.
- Doako webinar formatuko jardunaldien egutegia, urte honetan zehar, non Gipuzkoako enpresek beren negozioaren lehiakortasuna digitalizazioaren bidez hobetzeko tresnak eta jardunbide egokiak ezagutu ahal izango dituzten
- Kontsulterei erantzuteko leiho bat, digitalizazio-proiektuen finantzaketari eta informazio-teknologiekin lotutako beste hainbat gaiet buruzko zalantzak argitzeko.

Gure aurreikuspenen arabera, 200 enpresek baino gehiagok parte hartuko dute ekimenetan, eta digitalizazioak lehiakortasuna hobetzeko ekar dezakeenari buruzko ikuspegi zabala eskuratzeko aukera izango dute.

Horretarako, aurtengo maiatza eta abendua bitartean, neurrira egindako 20 aholkularitza eta Gipuzkoako enpresa eskaintzaileek aurkeztutako eraldaketa digitaleko kasuak plazaratzeko, 17 webminar eta mintegi baino gehiago egingo dira.

Lekualdatutako langileentzako dokumentu-kudeaketa, adimen lehiakorra, software txertatua erabiliz produktuak eraldatzea, prozesuei aplikatutako ikusmen artifiziala, datuen ingeniarietza edo adimen artifiziala dira adibide moduan enpresei beren produktuak eta negozio-ereduak eboluzionatzeko aukerak eskaintzen dizkieten aplikazioak batzuk.

Informazio gehiago:

Iñaki Ucin

iucin@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347